# Bestelako Xedapenak

## JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA OSASUN SAILA

**3518**

98/2008 DEKRETUA, maiatzaren 27koa, Eibarko «Asociación Debabarrena Parkinson Elkartea Deparkel» elkartea onuragarria dela aitortzeko dena.

Euskadiko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legearen 42. artikuluak honela dio: Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarteen Erregistro Orokorrean inskribatuta dauden elkarteak herri-onurakotzat aitortu ahal izango dira, baldin eta elkarteok, beren jardueren bitartez, interes orokorra edo guztien ongia lortzen laguntzen badute, eta, horretarako, eskuzabaltasun-, altruismo-, elkartasun- eta aniztasun-balioak nabarmen gauzatzen badituzte.

Lege horren babesean, Eibarko «Asociación Debabarrena Parkinson Elkartea Deparkel» elkarteak aitormen hori eman dakiola eskatu du, bere ustez, erakunde onuragarria dela aitortzea merezi duelako, Parkinson duten pertsonen, haien senideen eta gizarte-ingurunearen bizi-kalitatea hobetzeko burutzen dituen ekintzak direla-eta.

Erakunde eskatzailea 2005eko otsailaren 8an eratu zen eta 2005eko otsailaren 17an inskribatu zen Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarteen Erregistro Orokorrean, AS/G/11658/2005 erregistro-zenbakiarekin. Erakundeak Debabarreneko eskualdean (Gipuzkoa) dihardu batik bat.

«Asociación Debabarrena Parkinson Elkartea Deparkel» elkartea eratu zen unetik beretik, Parkinson gaixotasuna duten gaixoentzako eta haien senideentzako laguntza integrala sustatu du, fisioterapia-programen, masajearen, neuropsikologiaren eta laguntza psikologikoaren bidez. Horrela, parkinson duten gaixoen eta haien senideen bizi-kalitatea nabarmen hobetzea lortu du. Halaber, gaixotasunaren inguruko informazioa zabaltzeko eta aztertzeko ekintzen bidez lan handia egin du, gizartean parkinson normaltasunez ikusi eta onartzeko.

7/2007 Legearen 45.2 artikuluan agindutakoarekin bat etorriz, herri onurako aitorpena Jaurlaritzaren Kontseiluak erabakitako dekretu baten bidez egingo da, arloa dela-eta kasuan kasuko sailek proposatuta, eta sailek eta interesatuta dauden erakunde eta entitateek txostena eman ondoren. Agindu hori betez, dagokion espedientea instruitu da, eta, ondoren, sailei eta instituzioei eskatu zaizkien txostenak erantsi zaizkio espedien-

# Otras Disposiciones

## DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y ASUNTOS SOCIALES DEPARTAMENTO DE SANIDAD

**3518**

DECRETO 98/2008, de 27 de mayo, por el que se reconoce como de Utilidad Pública a la «Asociación Debabarrena Parkinson Elkartea Deparkel», de Eibar.

El artículo 42 de la Ley 7/2007, de 22 de junio, de Asociaciones de Euskadi establece que podrán ser reconocidas como de Utilidad Pública las asociaciones inscritas en el Registro General de Asociaciones del País Vasco que contribuyan, mediante el desarrollo de sus actividades, a la consecución del interés general o del bien común realizando de manera significativa los valores de generosidad, altruismo, solidaridad y pluralismo.

A su amparo, la «Asociación Debabarrena Parkinson Elkartea Deparkel», de Eibar, ha solicitado la declaración mencionada, por entender que las actividades que desarrolla para la mejora de la calidad de vida de las personas afectadas por la enfermedad de parkinson, sus familiares y entorno social, la hacen merecedora del reconocimiento como entidad de Utilidad Pública.

La Asociación solicitante es una entidad constituida el 8 de febrero de 2005 e inscrita en el Registro General de Asociaciones del País Vasco el 17 de febrero de 2005, con el número AS/G/11658/2005, que extiende su ámbito de actuación principalmente a la comarca guipuzkoana del Bajo Deba.

Desde su constitución, la «Asociación Debabarrena Parkinson Elkartea Deparkel» ha impulsado la ayuda integral a los enfermos de Parkinson y sus familiares mediante programas de fisioterapia, masajes, neuropsicología y de apoyo psicológico, logrando así una importante mejora en las condiciones de vida de los enfermos de parkinson y de sus familiares. Igualmente, mediante las distintas actividades de divulgación y estudio de la enfermedad, ha logrado una importante labor de normalización y aceptación de la enfermedad de Parkinson en el entorno social.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 45.2 de la citada Ley 7/2007, la declaración de Utilidad Pública se realizará mediante Decreto acordado en Consejo de Gobierno, a propuesta de los Departamentos que corresponda por razón de la materia, previo informe de los mismos y de los entes y organizaciones interesados. En cumplimiento de dicho mandato, se ha instruido el oportuno expediente, habiéndose incorporado al mis-

teari. Txosten horietan, bestalde, Eibarko «Asociación Debabarrena Parkinson Elkartea Deparkel» elkartea onuragarria dela aitortzearen alde agertzen dira bai sailak, bai instituzioak.

Ondorioz, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuaren, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren, eta Osasun sailburuaren proposamenez, interesaturik dauden erakunde eta entitateek emandako txostenak ikusi ondoren, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2008ko maiatzaren 27an egindako bilkuran aztertu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

***Artikulu bakarra.***– Eibarko «Asociación Debabarrena Parkinson Elkartea Deparkel» elkartea, Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarteen Erregistro Orokorrean AS/G/11658/2005 zenbakiaz inskribatuta dagoena, onuragarria dela aitortzea, bere jardueraren bidez, interes orokorren alde egiten duela jotzen baita.

Horrekin batera, aitorpen horri dagozkion eskubideak aitortzen zaizkio, hain zuzen ere, Euskadiko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legeko 43. artikuluan jasota daudenak.

Vitoria-Gasteizen, 2008ko maiatzaren 27an.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburua,
JOSEBA AZCÁRRAGA RODERO.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburua,
JAVIER MADRAZO LAVÍN.

Osasun sailburua,
GABRIEL M.ª INCLÁN IRIBAR.

**JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA**

**3519**

EBAZPENA, 2008ko maiatzaren 2koa, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saileko Azterlanen eta Araubide Juridikoaren zuzendariarena, Elkarteen Erroldan joan den apirilean egin diren sarrerak eta oharrak argitaratzeko dena.

Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legearen 12.2, 29., 38., 39. eta 40. artikuluetan agindutako ondorioetarako, Elkarteen Errolda Nagusia sortzen duen

mo los informes emitidos por los departamentos e instituciones requeridos al efecto, en los que manifiestan su parecer favorable a la declaración de la «Asociación Debabarrena Parkinson Elkartea Deparkel», de Eibar, como entidad de Utilidad Pública.

En su virtud, a propuesta de los Consejeros de Justicia, Empleo y Seguridad Social, de Vivienda y Asuntos Sociales y de Sanidad, vistos los informes emitidos por los entes y organizaciones interesados, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su reunión celebrada el día 27 de mayo de 2008,

DISPONGO:

***Artículo único***.– Declarar de Utilidad Pública a la «Asociación Debabarrena Parkinson Elkartea Deparkel», de Eibar, inscrita con el número AS/G/11658/2005 en el Registro General de Asociaciones del País Vasco, por considerar que contribuye a la promoción del interés general mediante el desarrollo de sus actividades.

Así mismo, se le reconocen los derechos inherentes a esta declaración previstos en el artículo 43 de la Ley 7/2007, de 22 de junio, de Asociaciones de Euskadi.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 27 de mayo de 2008.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social,
JOSEBA AZCÁRRAGA RODERO.

El Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales,
JAVIER MADRAZO LAVÍN.

El Consejero de Sanidad,
GABRIEL M.ª INCLÁN IRIBAR.

**DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL**

**3519**

RESOLUCIÓN de 2 de mayo de 2008, del Director de Estudios y Régimen Jurídico del Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social, por la que se hacen públicas relaciones de inscripciones y otras anotaciones practicadas en el Registro de Asociaciones durante el pasado mes de abril.

A los efectos de lo establecido en los artículos 12.2, 29, 38, 39 y 40 de la Ley 7/2007, de 22 de junio, de Asociaciones de Euskadi, en concordancia con lo pre-